



TOLOSAKO  
UDALA

## ALKATEAREN DEKRETUA

Zk.: 2020 / 740

**OLATZ PEON ORMAZABAL** Tolosako Udaleko Alkate-Lehendakariak emana.

**Gaia: Terrazen handitzea alarma egoeran, SND/399/2020 Aginduak emandako neurrien ondoren.**

### ***Aurrekariak***

463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua eten egin zituen ostalaritzako eta jatetxeetako jarduerak. Horren arabera, etxeko banaketa zerbitzua besterik ezin zen eman.

Maiatzaren 9ko SND/399/2015 Aginduak (maiatzaren 9ko BOE) alarma egoerak ezarritako zenbait murrizketa lasaitzeko baldintzak ezartzen ditu, Planaren I. fasea aplikatzeko.

Zehazki, Aginduaren IV. Kapituluak (15. eta 16. artikulua) baldintzak ezartzen ditu hotel eta jatetxeetako establezimenduetako terrazak publikoari berriro irekitzeko.

2. artikuluan eta Aginduaren eranskinean ezarritakoarekin bat etorritik, zehaztapen horiek aplikagarriak dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan eta, ondorioz, Tolosako Udalerrian.

Aurrekariak kontuan izanik, 7/85 Legeak, Toki araubidearen oinarriak ezartzen dituenak, 21. artikuluan m) eta q) ataletan ezarritakoarekin bat, Alkatetza honek

## EBATZI DU

**LEHENENGOA.- BALDINTZA HAUEK EZARTZEA, TERRAZEN AZALERA HANDITZEKO BAIMENA LORTZEKO ETA LEHENDIK BAIMENDUTAKO MAHAI KOPURUA AHAL DEN NEURRIAN MANTENTZEKO.**

Baimendutako terraza batera bideratutako eremua handitzea ahalbidetzeko eta, horrela, berehala aurreko urtean baimendutako mahai kopuru handiena mantentzeko, gaur egun terraza baimena duten ostalaritza terrazaren eremua handitzea baimentzen zaie establezimendu guztiei, baldintza hauek betetzen badituzte:



TOLOSAKO  
UDALA

1. Maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aginduz (maiatzaren 9ko BOE) Ministerioak mahaien eta erabilgarri dauden eremuen artean ezarritako erlazioa errespetatuko da.
2. Ziurtatuko da mahai taldeen artean badela gutxienez bi metroko distantzia fisikoa.
3. Azalera handitzen hasiko da honako irizpide hau hobetsita: mahaiak kokatuko dira lehenik baimendutako gunean, eta gero zabalduaz joango da eremua, kontuan izanda onartutako handitzea eta dekretu honetan adierazten diren mugak.
4. Oinezkoentzako bi metroko pasabidea bermatuko beharko da.
5. Ibilgailuentzako gutxienerako pasabidea 2,7 metrokoa izango da.
6. Plaza edo espazio libreetan, oinezkoentzako eremua gutxienez azalera osoaren % 50 izango da, eta, hori bermatzeko, terraza guztien eremua modu proportzionalean murriztuko da.
7. Salbuespenez, Udalak baimendu ahal izango du beste erabilera bat duten espazio publikoen erabilera aldatzea (adib. aparkaleku plaza bat, isleta bat, edota bestelakoak).

## **BIGARRENGOA.- INDARREAN DAGOEN ORDENANTZA EGOKITZEA.**

Artikulu hauek etenda edo aldatuta geratzen dira terrazen handitzea ahalbidetzeko:

Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantza (GAO, 199 zb., 2016/10/20):

7.1 artikulua (etenda).

7.2 artikulua (aldaketa: tarteak edo distantziak 2 metrokoa izan behar du).

7.5 artikulua (etenda. 8.5 artikulua ordezkatzen du).

8.1 artikulua (etenda).

8.5 artikulua (aldaketa: tarteak 2 metrokoa izan behar du).

8.2 artikulua (aldaketa: tarteak 2 metrokoa izan behar du).

9.1 a eta b artikulua (etenda).

9.1.d artikulua (aldaketa: tarteak 2 metrokoa izan behar du).

9.2 (etenda. 8.5 artikulua ordezkatzen du).

Ondorioz, ordenantzaren testua honela geratuko litzateke:

**7. artikulua. Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietan jarritakoak.**



~~1. Terrazaren azalera ezingo du gainditu ostatuaren eraikinaren fatxadarena, espazio beharreatatik inguruko etxaurreak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako establezimenduen adostasuna beharko da.~~

2. 1,5 2 metroko pasabidea bermatu behar da beti oinezkoen joan-etorritako eta etxebizitza nahiz lokalen sarbidea libre uzteko.

3. Oinezkoen dentsitatea edo beste arrazoi batzuk tarteko, terraza zintarri parean kokatu behar da pasabidea etxurre ondoan utzita (eranskin grafikoaren 1. aukera).

4. Segurtasun arrazoiak direla eta terraza zintarri parean kokatu beharra badago zintarriaren eta terrazaren artean gutxienez 30 cm utzi behar dira.

~~5. Terrazak ez dira inola ere jarriko arkupe edo pasabide estalietan.~~

(berria) 5. Salbuespenez baino ezingo dira arkupe edo ataripe gisako pasabide estaliak okupatu. Udal zerbitzuek zehaztuko dute zein kasutan baimenduko diren terrazak. Horrelakoetan, 2 m-ko pasabidea bermatu behar da.

#### **8. artikulua. Oinezkoen kaleetako terrazak.**

~~1. Terrazaren azalera ezingo du gainditu ostatuaren eraikinaren fatxadarena, espazio beharreatatik inguruko etxaurreak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, eraikin horietako establezimenduen adostasuna beharko da.~~

2. 1,5 2 metroko pasabidea bermatu behar da beti oinezkoen joan-etorritako eta etxe- bizitza nahiz lokalen sarbidea libre uzteko.

3. Oinezkoen dentsitatea edo beste arrazoi batzuk tarteko, terraza etxurretik urrundu beharko da oinezkoen joan-etorria ahalbidetzeko (eranskin grafikoaren 1. aukera).

4. Aintzat hartuko dira baimena emateko garaian ibilgailuen nahiz oinezkoen joan-etorri beharrak. Ibilgailuentzako pasabide nahikoa eta iraunkorra bermatu behar da.

5. Salbuespenez baino ezingo dira arkupe edo ataripe gisako pasabide estaliak okupatu. Udal zerbitzuek zehaztuko dute zein kasutan baimenduko diren terrazak. Horrelakoetan, 1,5 2 m-ko pasabidea bermatu behar da.

#### **9. artikulua. Plaza eta espazio libreetako terrazak.**

1. Terrazak plaza eta espazio libreetan jartzeko eskakizunak kasuan kasuko ezaugarriak aztertuta eta ondorengo baldintzen arabera ebatziko dira:

a) ~~Terrazaren etenik gabeko luzera plaza edo espazio libreak duenaren erdia izango da gehienez ere.~~

b) ~~Terrazaren zabalera plaza edo espazio publikoak duenaren herena izango da gehienez ere.~~

c) Inguruko etxebizitza eta lokaletarako sarbidea libre utzi behar da.

d) Etxurretik 1,5 2 m-ra jarri behar dira terrazak.

2. Terrazak ez dira inola ere jarriko arkupe edo pasabide estalietan.

### **HIRUGARRENA. PROZEDURA EZARTZEA, TERRAZAREN AZALERA HANDITZEKO ALDI BATERAKO BAIMENA LORTZEKO.**



Honela izapidetuko dira eskaerak:

- (1) Dekretuko baldintzak jakinaraziko zaizkie ostalariei.
- (2) Aurrez terraza baimena dutenek terrazak jarriko dituzte baldintza berriak kontuan izanik.
- (3) Baimenik ez dutenek, aldi baterako terraza jartzeko eskaera egingo dute hurrengo puntuetan adierazitako eran. Aurrez, ezingo dute terrazarik instalatu.
- (4) Udal teknikariak ikuskapena egingo du lekuan bertan, baldintzak betetzen direla berresteko edota, horrela ikusten bada, tokian bertan zuzenketak zehazteko.
- (5) Udal teknikariaren ikuskapenaren ondoren, terraza baimenaren titularrak eskaera orria (TERRAZAREN AZALERA ALDI BATERAKO HANDITZEKO ESKAERA COVID-19) aurkeztuko du erregistroan. Eskaera orria eskuragarri dago udaleko webgunean, "tramiteak" atalean, "terrazak jartzeko baimena" deritzanean.

Eskabidearekin batera, okupatuko duten azaleraren plano edo krokisa aurkeztu beharko dute, eskalan, bai eta terraza kokatua dagoen kaleko edo guneko tarteara ere.

Ezinbestekoa da helbide elektroniko bat jartzea eskaeran bertan, ebazpenaren jakinarazpena horren bidez aurreratzeke.

- (6) Zerbitzu teknikoek txostena egingo dute.
- (7) Txostena eta aurrekariak ikusirik, alkateak dekretua egingo du terrazaren handitzea onartzeko edo ukatzeko. Jakinarazpena aurreratuko da eskatzaileak adierazitako helbide elektronikora. Era berean, erabakia egoitza elektronikoaren bidez jakinaraziko da.

#### **LAUGARRENA.- DEKRETUAREN INDARRALDIA EZARTZEA.**

Dekretu hau indarrean egongo da COVID-19 gaixotasunak sortu duen larrialdi egoerak hala eskatuta terrazei ezarri zaizkien baldintzek dirauten bitartean, eta gehienez ere 2020ko urriaren 31 arte.

#### **BOSGARRENA.- HURRENGO UDALBATZARREAN ERABAKIA BERRESTEA.**

Erabaki hau hurrengo plenoko gai zerrendan sartuko da, Udalbatzak berretsi dezan.

#### **SEIGARRENA.- DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**



TOLOSAKO  
UDALA

Dekretu honen berri ematea interesdunei eta herritarrei, horretarako egokiak diren baliabideak erabiliz, erabakiak ahal den hedadura handiena izan dezan.

Tolosan, 2020ko maiatzaren 28an

Alkatea

Nire aurrean,

Udal Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vazquez

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Terrazen handitzea